



Elorrioko udala

Idazkaritza
Secretaría

Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko martxoaren 08an egin zuen ohiko bileran honako erabaki hau hartu zuen besteak beste:

Elorrioko Udalaren adierazpena

Herenegun, Xabier Rey Urmeneta preso Nafarra hilik agertu zen Cadizko Puerto III espetxean, bere etxetik 1000km-ra. Ez dira 8 hilabete pasa Kepa del Hoyo preso Galdakaozterra espainiar gobernuaren espetxe politikak erahil zuela. I hazko abuztu horretan, udal honek adierazpen hau onartu zuen:

“Zoritxarrez horrelako gertaera ezagun egiten zaigu Elorriarroi. Izan ere 1997ko otsailaren 7an Jose Mari Aranzamendi Arbulu Alcala Mecoko bere ziegan hilik agertu zen eta 2014ko otsailaren 5ean, 17 urte beranduago, Arkaitz Bellon Blanco Cadizko espetxean, bere etxetik 1.100km-ra hilda agertu zen.

2014ko otsailaren 6an udal honek pertsona guztien giza eskubideak, bake eta bizikidetzaren defendatzeko konpromezuaz, espetxe politikaren salbuespen egoerarekin amaitzea aldarrikatu zuen.

4 urte hauetan espainiar eta frantziar estatuen espetxe politika ez da batere aldatu eta aste honetan bertan beste euskal preso bat bere familia eta lagunengandik urrun, espetxean hilda.

Egoera hau beti izan bada bidegabea, egun gure herrian bizi dugun errealitate soziopolitiko honetan berau mantentzea erabat zentzugabea eta onartezina bihurtzen da.

Gauzak honela, salbuespeneko espetxe politika honekin eta urrunketa eta sakabanaketa-ekin amaitu beharra dago. Egoera hau aldatu ezean herri honetako sufrimenduaren soka luze honek ez du amaiera izango.”

Etorkizun iragarleak ez gara baina zoritxarrez asmatu genuen; euskal presoak beraien etxetik ehundaka/milaka kilometrora egoteak, isolatuta/bakartuta, lagun zerrenda mugatua izatea, bisita mugatuak, dei mugatuak... horrek izena du, tortura. Tortura psikologikoa. Eta tortura horrek erahil egiten du.

Gaur egun, ETaren jarduna amaitua dagoenean ere, espainiar gobernuak presoek eskubideak bortxatzen jarraitzen du.

Hauek horrela, Elorrioko udalak ondorengo puntuak onartzen ditu:

1. Horrelako gertakari samingarri baten aurrean, Xabier Rey Urmenetaren senide eta lagunei gure doluminak eta elkertasuna adieraztea.
2. Gure herrian bake eta bizikidetzaren testuinguru bat egonkortu nahi dugula berrestea: egungo urruntze eta sakabanatze politika atzean utzi nahi ditugu, eta preso eta senideen eskubideak errespetatuko dituen egoera baten alde egiten dugu.
3. Zentzu horretan, publikoki eskatzen dugu euskal presoak euren jaioterritik hurbilen dauden kartzeletara eroateko; halaber, kartzeletako eskumenak euskal erakundeen

- eskuetan uzteko eskatzen dugu, oinarrizko eskubideen aplikazioan aurrera egiteko.
4. Akordio hau Elorrioko herritarrei berehala jakinaraztea, eta tokiko komunikabideetara eta hedabide orokorretara bidaltzea zabaldu dezaten.
 5. Adierazpen hau, giza eskubideen kontra doazen egoerak desagerrarazteko neurriak hartzeko honako erakunde hauetara bidaliko da: Arartekoa, Eudel, Amnistia Internacional, Legebiltzarra eta Europako Giza Eskubideen Erakundera.
 6. Elorrioko herritarrei egun hauetan eman daitezkeen mobilizazioetara joateko gonbidapena luzatzea.

IDAZKARIA

M^a Teresa Oleaga Larrinaga



Elorrioko udala
Idazkaritza

Elorrio, 2018ko martxoaren 8a